eraikal **berriak** 16

2005
julio

boletín informativo del sector de la construcción

# sumario

1. Editada la “Guía ISO 9001 para microempresas de la construcción”
2. Nueva página web: Observatorio de la Vivienda
3. ERAILUR presenta el *Manual de Uso y Mantenimiento de la Vivienda*
4. Hemeroteca
5. Buzón de Consultas

## 1. **Editada** la “Guía ISO 9001 para microempresas de la **construcción**”

En el año 2003 la Comisión Europea estableció las características que definen el término “microempresa”: organizaciones con menos de 10 trabajadores cuyo volumen de ventas y/o balance general no supera los dos millones de euros.

Basados en esta definición, y motivados por la preocupación transmitida desde las diferentes asociaciones empresariales que conforman el colectivo de la construcción de la CAPV, desde la iniciativa Eraikal se realizó un estudio de la situación de las microempresas del sector en relación a su proporción, situación y necesidades en temas de gestión.




Apoyados en los resultados del citado estudio, del que se extrae que cerca del 95 % de las empresas de la construcción de la CAPV entran dentro del concepto de “microempresa”, a través de Eraikal, se ha creído imprescindible la dedicación de una atención especial para las pequeñas empresas y gremios del sector, potenciando la implantación de sistemas de gestión en éstas como base para la mejora de las mismas, y en consecuencia, de todo el sector, dada la enorme proporción de estas empresas que lo conforman.

Como un primer paso, preludio de las diversas actividades que se están llevando a cabo en el programa, se ha puesto a disposición del sector la **“Guía ISO 9001 para microempresas de la construcción**”.

Esta guía pretende **facilitar a las microempresas que trabajan** en el ámbito de la edificación residencial, la implantación y certificación de la norma ISO 9001, de acuerdo a unos requisitos mínimos exigibles por la citada norma, y acordes con las características de una pequeña empresa y con los procesos que se desarrollan en las obras.

Los contenidos propuestos han sido desarrollados en colaboración con AENOR, buscando siempre su máxima adecuación y acercamiento a la realidad de nuestras microempresas, de cara a su certificación de acuerdo a los principios establecidos en **la norma ISO 9001**.

## Objetivos

En base a lo anteriormente expuesto, los objetivos básicos de esta guía son:

- *Proponer una interpretación sencilla* de los requisitos *de la norma ISO 9001*, de forma que su aplicación implique la menor complicación posible en la empresa.
- Facilitar la fase de *elaboración de documentación*, ofreciendo ésta *adaptada* a las peculiaridades de las microempresas del sector.

## Empresas objetivo

Resultando imposible poder abarcar todas las microempresas que conforman el sector, la guía se ha centrado en aquellos gremios y empresas auxiliares de la Edificación Residencial, cuyos trabajos sean en obra nueva o rehabilitación y que hayan sido subcontratados por un constructor o contratista.

Los trabajos relacionados con la prestación de servicios a domicilio, obras industriales, así como los relacionados con servicios de mantenimiento de instalaciones, quedan fuera del campo de aplicación; aun sabiendo que suponen un gran porcentaje de los trabajos desarrollados por microempresas del sector.

En cualquier caso, debido al carácter horizontal, independiente de los procesos de producción específicos de la empresa, una gran parte de las actividades de gestión propuestas en esta guía son perfectamente adaptables a cualquier tipo de pequeña empresa, lo que permite y recomienda su utilización por aquellas no incluidas específicamente en las descritas anteriormente.

## Estructura de la guía

La documentación que presenta esta guía está constituida por los 3 elementos básicos para la implantación de un sistema de gestión de calidad:

- Manual de calidad tipo
- Procedimientos básicos
- Formatos asociados

Es importante señalar que a pesar de estar denominada como guía, la documentación citada no recoge los requisitos de forma textual, sino que éstos se presentan aplicados a una empresa objeto.

Con esta redacción se pretende facilitar a la microempresa la elaboración de la documentación y pasar el "duro paso inicial", que es sentarse frente a un papel en blanco e interpretar requisitos de una norma.

Hay que señalar que la aplicación de esta documentación no debe realizarse de forma inmediata sino que requiere una revisión previa de cara a su adaptación a las peculiaridades de organización. Este comentario es especialmente importante en el apartado relacionado con la realización de los trabajos, (capítulo 6 del manual); apartado en el que las características propias de cada microempresa se harán más evidentes.

Para facilitar la adaptación de los materiales propuestos en cada empresa, se presentan tanto en soporte papel como electrónico.

## Descripción de la documentación

El **Manual de Calidad** tipo ha sido estructurado siguiendo una orientación muy similar a los apartados principales de la norma ISO.



Para observar la vinculación de cada apartado con la norma, el índice del manual se presenta la correspondencia de éste con cada uno de los capítulos de la norma.

La redacción de este manual difiere bastante de lo que normalmente han sido este tipo de documentos, ya que realiza una descripción bastante exhaustiva de las tareas a realizar, ahorrando así, la existencia de procedimientos.






Cada capítulo del manual presenta la siguiente estructura:

- **Descripción/Definición** de la actividad principal a la que se refiere cada capítulo.
- **Operaciones/Tareas** a realizar para dar cumplimiento a los requisitos que se refiere cada capítulo, señalando específicamente el responsable de cada una de ellas.
- **Documentos/Registros** utilizados y obtenidos como consecuencia de la realización de las tareas anteriores, señalando el archivo donde dichos documentos deben ser guardados.



Por otra parte, los **6 Procedimientos** exigidos por la norma se presentan en 3 documentos. Se deja a criterio de la propia empresa la redacción de más procedimientos, en función de la complejidad de sus actividades.



Se presentan **14 formatos** en los que se recogerán las evidencias de su aplicación. Aunque se ha intentado que gran parte de los registros formaran parte de la documentación habitual que se maneja en una empresa de estas características, tales como el presupuesto, bono de trabajo, albaranes de entrega de materiales, etc., ha sido necesario añadir documentos en los que la empresa dejará evidencia de las actividades derivadas del sistema de gestión que, bien hasta ahora no registraba, o bien no realizaba.

## Puntos clave de la guía

Existen una serie de apartados en los que se ha trabajado especialmente para simplificar la aplicación de los requisitos de la Norma ISO 9001, y que son diferenciadores de este modelo propuesto.




## Mapa de procesos

El mapa de procesos se ha desarrollado de forma muy sencilla, basándose en el mismo esquema presentado por la norma, y desarrollándolo a un segundo nivel en el apartado de "Realización de los trabajos". Se ha entendido que una profundización mayor daría lugar a procesos muy dispares, dependiendo de la actividad de cada gremio.

La gestión y el control de los procesos planteada se basa en gran medida en el control y seguimiento de indicadores. Por ello, se han propuesto una serie de indicadores asociados a cada uno de los procesos, para facilitar a las empresas la búsqueda y definición de aquellos que más se ajusten a sus procesos, o sobre los que en un determinado momento más le interese controlar.

## Estructura del archivo documental

La gestión documental derivada de un sistema de calidad se traduce en la obligación de tener la documentación localizada, accesible, en las versiones adecuadas, y en los puntos y momentos en que se necesita. Esta gestión se ha desarrollado teniendo en cuenta la trazabilidad del



proceso constructivo, aspecto necesario y fundamental en este tipo de empresas.

Como peculiaridad de este modelo, se propone un archivo documental basado en las funciones o figuras claves de una empresa que intervienen en una obra:

- El **Libro del Gerente**, contiene los registros de información relacionada directamente con la gestión interna de la empresa: Revisión y seguimiento, Informe de evaluación de satisfacción del cliente, Listado de Indicadores.

- El **Libro del Encargado de Obra**, contiene toda la información relacionada con cada obra en cuestión. Se considera necesaria la apertura de una carpeta de Expediente de Obra, con el fin de asegurar la trazabilidad de la misma, y en aquellos casos en los que sea necesario, poder entregar al cliente toda aquella información y registros, que se establecen de acuerdo a la L.O.E.

- **Libro de Administración y Presupuestos**, con el fin de llevar un control de compras y de los presupuestos, de cara a un mayor control de la gestión empresarial.

- El **Libro de Calidad**, contiene los registros derivados del control documental, gestión de los recursos (humanos, en el tema de formación), y del mantenimiento y control de equipos, etc.

Esta distribución es funcional, por lo que, en muchos casos, debido al reducido tamaño de estas empresas, varias de estas figuras pueden confluir en una.

### Seguimiento de obra

En el desarrollo de los aspectos relacionados con el seguimiento de la obra, se ha procurado evitar que la implantación de un sistema de gestión de calidad implique la introducción de grandes cambios en la gestión diaria de los trabajos, intentando aprovechar las acciones de seguimiento y control de los trabajos que de forma habitual se llevan a cabo en el desarrollo de una obra.

A pesar de este esfuerzo de interferir lo menos posible en la forma de trabajo habitual, ha sido necesario integrar aspectos relacionados con las acciones de mejora, tanto a nivel de ejecución de trabajos como de organización interna de la empresa, que si bien en la mayoría de los casos no supondrán actividades adicionales a las desarrolladas, sí requerirán un esfuerzo a la hora de registrarlas.

### Seguimiento y revisión por la Dirección

Este es quizás el punto más novedoso para una empresa que no dispone de un sistema de gestión de calidad. En este proceso radica el hecho de que un sistema de calidad se convierta realmente en una herramienta de gestión y de mejora interna de la empresa, ya que se pretende que el Gerente analice de forma periódica la situación de su empresa y ponga en marcha las acciones necesarias para corregir determinados aspectos que, a futuro, puedan tener resultados más negativos.

## El sistema de gestión de calidad en el día a día: hacia mejora continua

Como consecuencia de la aplicación de los requisitos recogidos en la guía, la implantación eficaz de un sistema de gestión de calidad en el día a día va a conllevar para una empresa la realización de las siguientes actividades:

- En Obra:
  - Realización y seguimiento de un Plan de Trabajo.
  - Control de las compras, a través de la comprobación de los pedidos y subcontrataciones.
  - Seguimiento de obra.
  - Identificación y corrección del incumplimiento de requisitos establecidos a través de la gestión de las No Conformidades.
- En la Gestión de la empresa:
  - Control de los recursos, tanto humanos como materiales.
  - Seguimiento de los procesos de la empresa a través de indicadores.

Aunque en la mayoría de los casos, estas actividades son realizadas en la actividad cotidiana de las empresas, como se ha comentado en al apartado anterior, es cierto que el registro de estas actividades, evidenciando los requisitos establecidos en la norma ISO 9001, es lo que en un principio puede "asustar" a una empresa a la hora de decidirse en implantar un sistema de gestión.

Como contrapartida, y apoyando siempre el principio de simplificación documental que el sistema propone, deben recordarse las ventajas que para una empresa significa tener implantado un sistema de calidad:

- Mejora su imagen externa ante clientes y proveedores.
- Asegura un adecuado control de las actividades y procesos de trabajo.
- Identifica, planifica y permite realizar el seguimiento de los objetivos de mejora previstos.
- Incentiva la participación de todos los miembros de la empresa.
- Optimiza la utilización de los recursos disponibles.
- Acerca los resultados de la gestión hacia la satisfacción del cliente.

Conscientes de que una de las principales carencias que caracteriza a las pequeñas empresas del sector es su propia gestión interna, la aplicación de los criterios en los que se basa la norma ISO 9001:2000 se percibe como una importante herramienta de ayuda en el control y mejora interna de este tipo de organizaciones.

## Una guía por y para el sector

Al igual que todos los materiales desarrollados dentro del entorno de la iniciativa Eraikal, la "**Guía ISO 9001 para microempresas del sector de la construcción**" está a disposición de todas las empresas a través de:

- Asociaciones empresariales del sector de la construcción de la CAPV.
- Buzón de Consultas Eraikal: eraikal@ej-gv.es

# 2. Nueva página web: "Observatorio de la Vivienda"




**www.ej-gv.net/etxebehategia/**

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales ha concedido históricamente una preferencia estratégica a la elaboración y puesta en práctica de planes estadísticos en materia de vivienda y suelo, a la realización de estudios, informes y publicaciones en la materia, y al mantenimiento y gestión de sistemas de información que garanticen un adecuado conocimiento de la realidad sectorial del mercado de vivienda y suelo.

En los últimos años la demanda de información estadística en materia de vivienda ha presentado un crecimiento exponencial, debido, mayormente, a la gran cantidad de agentes intervinientes en los procesos del sector y sus índices de dinamismo.

Fruto de la mejora continua de los procesos, productos y servicios que ofrece el Departamento, que es uno de los ejes de actuación del Plan Director de Vivienda en vigor, nace el proyecto **Observatorio de la Vivienda**, como órgano virtual de encuentro de los agentes participantes en el sector, para que, sobre la base de la información existente, se pueda generar nuevo conocimiento con fines útiles a la política de vivienda.

El Observatorio de la Vivienda contempla toda la información estadística que genera el Departamento de Vivienda a través de sus operaciones estadísticas oficiales, más el conjunto de estudios e informes que desarrolla sobre los citados datos; información a la que podrán acceder los clientes y la ciudadanía, de una manera más ágil, rápida, completa y estandarizada:

- Información estadística, fichas metodológicas, notas de prensa, documentos e informes producidos por el Departamento en materia de vivienda.
- Plan Director de Vivienda en vigor y los informes de seguimiento oficiales al mismo.
- Normativa legal de la CAE en materia estadística.
- Cuadro de mando del Observatorio de Vivienda.
- Informes de interés con relación al sector, elaborados por el propio Departamento o por terceros.

Asimismo, se puede solicitar información más específica a través de los responsables estadísticos del Departamento.

En la actualidad, el Observatorio de la Vivienda no contempla toda la información del sector, ni posibilita todavía, virtualmente, el foro de debate y generación de nuevo conocimiento que en definitiva pretende. Ambos son objetivos a lanzar e implantar en un futuro próximo.

# 3. ERAILUR presenta el *Manual de Uso y Mantenimiento de la Vivienda*

ERAILUR, Comisión de la Edificación en Bizkaia, ha presentado el "*Manual de Uso y Mantenimiento de la Vivienda*", una publicación diseñada y editada por este organismo que aúna a los aparejadores, arquitectos, promotores y constructores de Bizkaia, con la colaboración del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

Esta publicación reúne instrucciones para el buen uso y correcto mantenimiento de nuestra vivienda y del edificio en el que se encuentra, añadiendo información para un mayor conocimiento de los distintos aspectos normativos, técnicos, de la propiedad, etc.

El citado Manual, en castellano y euskera, está dirigido a los profesionales de la Edificación de Bizkaia y del resto del País Vasco, aunque está disponible para el público en general de manera gratuita en la página web **www.erailur.com.**



# 4. Hemeroteca

### La patronal de la construcción crea un registro de las compañías más seguras en las obras

Uno de los principales compromisos de la Confederación Nacional de la Construcción, CNC, es potenciar el cumplimiento de la legislación en materia de seguridad y salud en el trabajo. Para ello, ha puesto en marcha el diseño de un nuevo certificado de empresas que garantice el cumplimiento mínimo de las obligaciones en esta materia. La iniciativa, que será trasladada a la Administración en breve, consiste en la creación de un registro en el que, inicialmente, las empresas inscritas garantizan que están al día en el ámbito del Anexo II del Real Decreto 1627/1997 (detalla los trabajos que implican riesgos especiales para la seguridad y la salud de los trabajadores).

Se trata de establecer una especie de sello de calidad en el sector, un instrumento para distinguir a las compañías más seguras. A su vez, los clientes, tanto privados como públicos, tendrán un instrumento donde buscar a las empresas que certifican el cumplimiento de la legislación. La propuesta de la CNC incide directamente sobre el mercado de obra pública y la revisión que está acometiendo el Gobierno de los mecanismos de acceso y de valorización de ofertas para los nuevos contratos de obras. La patronal no quiere que este certificado pueda interpretarse como un sistema de puntuación de las ofertas, ya que sería ilegal. Pero no ve con malos ojos que forme parte del sistema de clasificación previo de empresas que quieran acceder al mercado.

*Fuente: Expansión (10/05/2005)*



### Osalan subvencionará la implantación de sistemas de gestión de riesgos

El Instituto de Salud y Seguridad Laboral, Osalan, subvencionará este año a las empresas que implanten sistemas de gestión de riesgos laborales en sus centros productivos.

El Boletín Oficial del País Vasco ha publicado el día 21 de junio la resolución del organismo dependiente del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social que permite a las empresas que hayan incorporado este tipo de proyectos verse favorecidas por las subvenciones.

El Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral tiene previsto destinar este año a estas ayudas un total de 300.000 euros.

Para la concesión de las ayudas, además del estricto cumplimiento del plazo de ejecución -las actividades subvencionables deberán encontrarse finalizadas antes de concluir el año-, Osalan valorará el grado de aplicación de las normas, especificaciones técnicas o recomendaciones dictadas por organismos de reconocido prestigio.

También se tendrán en cuenta el grado estimado de calidad de las acciones (integración del sistema con los de calidad y medio ambiente); el nivel de participación del personal en relación con las actuaciones en materia de prevención de riesgos laborales y en los proyectos de implantación; las dimensiones de la empresa y esfuerzo inversor; y, la pertenencia de la empresa o grupo de empresas a sectores de alta siniestralidad.

*Fuente: www.prevention-world.com (21/06/05)*

**Buzón** de consultas eraikal@ej-gv.es

Si usted desea recibir por correo los boletines de información "ERAIKAL BERRIAK", envíenos una petición a través del buzón de consultas eraikal@ej-gv.es indicando Destinatario, Empresa y Dirección de Correo.

eraikal berriak 16
2005 uztaila
eraikintzaren arloaren informazio-aldizkaria

## aurkibidea

1. "Eraikintzako mikroenpresentzako ISO 9001 Gidaliburua", argitaratuta
2. Web-orri berria: Etxebizitza Behategia
3. ERAILURek Etxebizitzaren Erabilera eta Mantenimendurako Liburua aurkeztu du
4. Hemeroteka
5. Itaun-postontzia

# 1. "Eraikintzako mikroenpresentzako ISO 9001 Gidaliburua", argitaratuta

Europako Batzordeak "mikroenpresa" terminoa definitzen zuten ezaugarriak ezarri zituen 2003an. Mikroenpresak izateko 10na langile baino gutxiago izan behar dute erakundeek, eta beren salmenta kopurua edo/eta balantze orokorra bi milioi eurokoa edo txikiagoa izan behar dute.

Definizio hori oinarri harturik, eta EAEko eraikintzako taldea osatzen duten enpresa elkarteek azaldutako kezkaren eraginez, Eraikal ekimenaren barruan, sektoreko mikroenpresen egoera aztertu zen: proportzioa, egoera eta kudeaketari buruzko gaietako beharrizanak.




Aipatu azterlanetik ondoriozta daitekeenez, EAEko eraikintzako 100eko ia 95 enpresa "mikroenpresa"ren kontzeptuaren barruan sarturik daude. Azterlan horretan oinarriturik, ezinbestekotzat hartu da sektoreko enpresa txikientzako eta gremioentzako arreta berezia ematea eta haietan kudeaketa-sistemak ezartzea bultzatzea. Izan ere, beroriek haiek eta, hortaz, sektore osoa hobetzeko oinarritzat hartu dira eta sektore honetako enpresarik gehienak horrelakoak dira.

Programan burutzen ari diren jardueren sarrera gisako lehenengo urratsa **"Eraikintzako mikroenpresentzako ISO 9001 Gidaliburua"** sektorearen eskura jartzea izan da.

Gidaliburu honen bitartez, ISO 9001 araua ezarri eta ziurtatzea erraztu nahi zaie egoitzak eraikitzeko eremuan lan egiten duten mikroenpresei, aipatu arauak gutxienez eskatu ahal dituen eta enpresa txikiaren ezaugarriekin eta obretan garatzen diren prozesuekin bat datozen beharrizanei bat etorririk.

Proposatutako edukiak AENOR-ekiko lankidetzan garatu dira, gure mikroenpresen errealitatera ahalik eta gehien egokitzeko eta hurbiltzeko, zertarako haiek ISO 9001 arauan ezarritako abiaburuekin bat etorririk ziurtatzeko.

## Helburuak

Aurretik azaldutakoa oinarri harturik, gidaliburu honen oinarrizko helburuak honako hauek dira:

- ISO 9001 arauko beharkizunak erraz ulertzea proposatzea, zertarako-eta haiek enpresan ahalik eta errazen aplikatu ahal izateko.
- Dokumentazioa egiteko fasea erraztea, hura sektoreko mikroenpresen berezitasunei egokituta emanik.

## Jomuga-enpresak

Sektorea osatzen duten enpresa guztiak barnean hartu ezinik, gidaliburuak Egoitzak eraikitzeko gremioak eta enpresa laguntzaileak hartu ditu oinarri, obra berriko edo birgaiketako lanak egiten dituzten eta eraikitzaileak edo kontratariak azpikontratatu dituenak.

Etxez etxeko zerbitzugintzarekin, industri obrekin eta instalazioen mantenimenduko zerbitzuekin zerikusia duten lanak aplikazio eremutik kanpo geratu dira, sektoreko mikroenpresek garatzen dituzten ehuneko lan asko horrelakoak direla jakinik ere.

Nolanahi ere, enpresaren ekoizpen-prozesuei lotu gabeko izaera horizontalarengatik, gidaliburu honetan proposaturiko kudeaketa-jarduera asko edozein enpresa txikiri oso egoki dakizkioke. Hori dela eta, buru daitekeena eta gomendatzeko modukoa da aurretik azaldutakoetan zehazki sarturik ez daudenek haiek erabiltzea.

## Gidaliburuaren egitura

Gidaliburu honen dokumentazioa kalitate-kudeaketarako sistema ezartzeko 3 oinarrizko elementuek osatuta dago; hona hemen 3 elementuok:

- Eredu-kalitateari buruzko eskuliburua.
- Oinarrizko prozedurak.
- Formatu elkartuak.

Garrantzizkoa da azpimarratzea ezen, gidaliburua deiturik egon arren, aipatu dokumentazIoak ez ditu beharkizunak zehatz-mehatz bildurik, xede den enpresa bati aplikaturik baino.

Hau idatziz mikroenpresari erraztu nahi zaio dokumentazioa egitea, eta "hasierako urrats gogorra" bizitzea, hau da, paper letraz hutsa hartu eta arauko beharkizunak interpretatzea.

Adierazi behar denez, dokumentazio hori ez da berehala aplikatu behar: aurretik berrikusi behar da, erakundearen berezitasunei egokitzeko. Iruzkin hori bereziki garrantzizkoa da lanak egiteari buruzko atalean (eskuliburuaren 6. kapituluan). Atal horretan hobeto ikus daitezke mikroenpresen ezaugarri bereziak.

Enpresa bakoitzean proposatutako materialak, beraiek egokitzea errazteko, paper euskarrian eta euskarri elektronikoan ageri dira.

## Dokumentazioaren deskribapena

Ereduzko **Kalitate Eskuliburua** ISO arauaren atal nagusietakoaren oso antzeko orientazioari jarraiki egituratu da.



Atal bakoitzaren arauarekiko lotespena ikusteko, eskuliburuaren aurkibidean, arauaren kapitulu bakoitzarekiko korrespondentzia ageri da.

Eskuliburu honen idazketa horrelako agirien orain arteko ohiko idazketaren nahikoa ezberdina da. Izan ere, zorroztasun nahikoaz deskribatu dira egiteko lanak, prozedurak gutxiagoturik.

Eskuliburuaren kapitulu bakoitza honelaxe dago egituraturik:



- Kapitulu bakoitza ari den jarduera nagusiaren **deskribapen/definizioa**.






• Kapitulu bakoitzeko beharkizunak betetzeko **egiteko Eragiketa/Lanak.** Bertan zehazki adierazita dago kapitulu bakoitzeko arduraduna.

• Aurreko lan edo atazak egitearen ondorioz erabili eta lortutako **Agiri/Erregistroak**. Aipatu agiriak gorde behar diren artxiboa adierazirik dago.

Beste alde batetik, arauak eskaturiko 6 **Prozedurak** 3 agiritan aurkeztu dira. Enpresaren beraren irizpidez idatzi ahal dira prozedura gehiago, haren jardueren konplexutasunaren arabera.





14 **formatu** aurkeztu dira. Berorietan bilduko dira haiek aplikatzeko nabaritasunak. Asmoa erregistro asko horrelako enpresetan erabiltzen den ohiko dokumentazioaren zati izatea izan da, esate baterako, aurrekontua, lan-bonua, materialak emateko agiriak eta abar. Alabaina, enpresak orain arte erregistratu edo egiten ez zituen kudeaketa-sistematiko jarduerak nabariaraziko dituen agiriak erantsi behar izan dira.

## Gidaliburuaren funtsezko puntuak

ISO 9001 Arauko beharkizunak aplikatzea errazteko bereziki lan egin duen zenbait atal daude, proposatu eredu hau bereizten dutenak.

### Prozesu-mapa

Prozesu-mapa oso modu errazean garatu da, arauak aurkezturiko eskema bera oinarri harturik, eta bigarren mailan garatu da "Lanak egite"ari buruzko atalean. Ulertu denaren arabera, sakonagotzeak oso prozesu ezberdinak ekarri ahal ditu, gremio bakoitzaren jardueraren arabera.

Prozesuen kudeaketa eta kontrol azalduak adierazleen kontrol eta jarraipena du oinarri, neurri handi batean. Horregatik, prozesu bakoitzari loturiko zenbait adierazle proposatu dira, enpresei beraien prozesuetara ondoen doitzen direnak edo une jakin batean kontrolatzea gehien interesatzen zaizkienak bilatzea eta zehaztea errazteko.



### Agiri-artxiboaren egitura

Kalitate-sistemaren ondoriozko agiri kudeaketarako beharrezkoa da dokumentazioa aurkiturik, eskuratzeko moduan, bertsio egokietan eta beharrezko puntu eta uneetan izatea. Kudeaketa hori garatzeko kontutan hartu da eraikitze-prozesuaren trazagarritasuna. Arlo hori beharrezkoa eta funtsezkoa da horrelako enpresetan.

Eredu honen berezitasun gisa, obra batean esku hartzen duten enpresa bateko funtsezko figura edo funtzioetan oinarrituriko agiri-artxiboa proposatu da:

- **Gerentearen Liburua.** Enpresaren barruko kudeaketarekin zuzenean loturiko informazioaren erregistroak ditu: Berrikuspena eta jarraipena, Bezeroaren gogobetetasuna ebaluatzeko txostena, Adierazle-zerrenda.
- **Obrako Arduradunaren Liburua.** Obra bakoitzari buruzko informazio guztia du. Beharrezkotzat jo da Obra-espedientearen karpeta irekitzea, zertarako-eta haren trazagarritasuna bermatzeko eta, hala behar izanez gero, bezeroari Estatuaren Lege Organikoarekin bat etorririk ezartzen diren erregistroak eta informazio guztia eman ahal izateko.
- **Administrazioari eta Aurrekontuei buruzko Liburua.** Beraren xedea erosketak eta aurrekontuak kontrolaturik izatea da, zertarako-eta enpresa-kudeaketa modu zorrotzagoan kontrolatzeko.
- **Kalitate-liburua.** Honako jatorriok dituzten erregistroak ditu: agiriak kontrolatzea, baliabideak (prestakuntzari buruzko gaian, giza baliabideak) kudeatzea, ekipoak artatu eta kontrolatzea...

Banaketa hori funtzionala da. Hori dela eta, kasu askotan, enpresa hauen tamaina txikia dela eta, figurotako batzuk bat egin daitezke.

### Obra-jarraipena

Obraren jarraipenarekin zerikusia duten arloak garatzeko, kalitatea kudeatzeko sistema ezartzeak lanen eguneroko kudeaketan aldaketa handiak sartzea berekin ekartzea saihestu nahi izan da, eta obrak garatzeko burutu ohi diren lanen jarraipen eta kontrolerako ekintzak aprobetxatu.

Ohiko lan-eran ahalik eta esku urriena sartzeko ahaleginok egin arren, enpresaren lan-burutzapena eta barruko antolaketa hobetzeko ekintzekin zerikusia duten arloak sartu behar izan dira. Haietarik gehienek ez dute garatutakoak beste jarduerarik ekarriko, baina beraiek gauzatzeko ahaleginak egin beharko dira haiek erregistratzerakoan.

### Zuzendaritzak jarraipena egin eta berrikustea

Hau, beharbada, kalitatea kudeatzeko sistemarik ez duen enpresa batentzat punturik berriena da. Prozesu honetan datza kalitate-sistema benetan enpresaren barruko hobekuntzarako eta kudeaketarako tresna bihurtzea. Izan ere, asmoa honakoa da: gerenteak bere enpresaren egoera aldizka aztertzea eta etorkizunean emaitza negatiboagoak izan ahal dituzten arlo jakin batzuk zuzentzeko beharrezko ekintzak abioan jartzea.

## Egunero kalitatea kudeatzeko sistema: hobekuntza etengaberantz

Gidaliburuan jasotako beharkizunak aplikatzearen ondorioz, egunero kalitatea kudeatzeko sistema eraginkortasunez ezartzeak enpresarentzat honako jarduera hauek egitea ekarriko du berekin:

- Obran:
  - Lanerako Plan bat burutzea eta beraren jarraipena egitea.
  - Erosketak kontrolatzea, eskariak eta azpikontratazioak egiaztatuz.
  - Obraren jarraipena egitea.
  - Ezadostasunak kudeatuz ezarritako beharkizunak betetzen diren jakin eta, horrelakorik bete ezean, zuzentzea.
- Enpresaren kudeaketan:
  - Baliabideak kontrolatzea, bai giza baliabideak bai baliabide materialak.
  - Enpresaren prozesuen jarraipena egitea, adierazleen bitartez.

Kasurik gehienetan, jarduerok enpresen eguneroko jardueran egiten dira, aurreko atalean azaldu bezala, egia da jarduerok erregistratzeak eta ISO 9001 arauan ezarririko beharkizunak nabariarazteak hasiera batean enpresak "izutu" ahal dituela kudeaketa-sistema ezartzeko erabakia hartzerakoan.

Horren ordainez, sistemak agiriak errazteko proposaturiko abiaburua beti oinarri harturik, gogora ekarri behar dira kalitate-sistema ezarririk izateak enpresa batentzat ekartzen dituen abantailak:

- Bezeroen eta hornitzaileen aurreko haren kanpo-irudia hobetzen du.
- Lan prozesu eta jarduerak behar bezala kontrolatzea bermatzen du.
- Aurreikusi edo ezarritako hobekuntza-helburuak identifikatzen ditu eta berauen jarraipena planifikatu eta ahalbidetzen du.
- Enpresako kide guztien parte-harmena pizten du.
- Eskuratu ahal diren baliabideen erabilera hobetzen du.
- Kudeaketaren emaitzak bezeroaren gogobetetasunerantz hurbiltzea.

Sektoreko enpresa txikiek dituen gabetasun nagusietako bat haien barruko kudeaketa bera dela jakinik, ISO 9001:2000 araua oinarritzen den irizpideak aplikatzea horrelako erakundeen barruko hobekuntza eta kontroletarako laguntzarako tresna garrantzitsua da.

## Sektorearen onerako gidaliburua

Eraikal ekimenaren inguruan garatutako material guztiak bezala, **"Eraikintzaren sektoreko mikroenpresentzako ISO 9001 Gidaliburua"** enpresa guztien eskura dago. Horretarako, honakook baliatu ahal dituzte:

- EAEko eraikintzaren sektoreko enpresa elkarteak.
- Eraikal itaun-ontzia: eraikal@ej-gv.es

# 2. Web-orri berria: Etxebizitza Behategia




**www.ej-gv.net/etxebehategia/**

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak betidanik lehentasun estrategikoa eman dio etxebizitzaren eta lurzoruaren alorrean plan estatistikoak lantzeari eta burutzeari, etxebizitzaren alorrean ikerketak, txostenak eta argitalpenak egiteari eta etxebizitza eta lurzoru merkatuaren errealitate sektorialaren jakite egokia bermea eman dezaten informazio sistemen mantenimenduari eta kudeaketari.

Azken urteotan Etxebizitza alorrean informazio estatistikoaren eskariak hazkunde esponentziala izan du, batik bat, sektore prozesuetan parte hartzen duten hainbeste agenteen eta dinamismo-indizeen eraginagatik.

Etxebizitza Sailak eskaintzen dituen prozesuen, produktuen eta zerbitzuen etengabeko hobekuntzaren ondorioz, Indarreko Etxebizitza Bideratzeko Planaren jardun-ardatz barruan hausnartuta dagoelarik, **Etxebizitza Behategia** proiektua sortu da. Erakunde birtual gisa sektorean parte hartzen duten agenteak elkartzeko eta informazio oinarrizkotik jakite berria sortu dezake etxebizitza politikarentzat helburu erabilgarriekin.

Behategiak Etxebizitza Sailak sortzen duen estatistika informazio guztia hausnartzen du, bere operazio estatistika ofizialen bidez, eta gainera aipatutako datuen gainean garatzen dituen azterlanak eta txostenak. Informazio hori bezeroek eta herritarrek biziago, erabatekoago, azkarrago eta estandarrago eskura dezakete.

- Estatistika informazioa, fitxa metodologikoak, prentsa oharrak, agiriak eta txostenak etxebizitzarekin lotutakoa.
- Indarreko Etxebizitza Bideratzeko Plana eta bere txosten ofizialen segimendua.
- EAEn legezko araudia estatistikaren alorrean.
- Etxebizitza Behategiaren aginte-koadroa.
- Sailak edo bitartekoek egin dituzten txosten interesgarriak sektorearekin lotuta.

Halaber, berariazko informazioa Saileko estatistika arduradunen bitartez eska daiteke.

Gaur egun, Etxebizitza Behategiak ez du sektoreko informazio guztia hausnartzen eta, momentuz, web-ean ez da eztabaidalekua eta jakite berria sortzeko aukera emango baina horixe izango da bere asmoa. Biak dira, hemendik gutxira, hasteko eta ezartzeko helburuak.

# 3. ERAIULRek Etxebizitzaren Erabilera eta Mantenimendurako Liburua aurkeztu du



ERAILURek, Bizkaiko Eraikuntza Batzordeak, "Etxebizitzaren Erabilera eta Mantenimendurako Liburua" aurkeztu du. Argitalpen hau Bizkaiko aparejadore, arkiteko, eraikitzaile eta sustatzaileek osatzen duten elkarteak diseinatu eta argitaratu du, Eusko Jarularitzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuaren lankidetzarekin.

Argitalpen honetan bildu dira geure etxea eta eraikina behar bezala zaintzeko eta erabiltzeko jarraibideak. Horrezaz gain, hainbat alderdi hobeto ezagutzeko informazioa ere erantsi zaio, hala nola, araudizko xehetasunak, xehetasun teknikoak, jabetzari buruzkoak, etab.

Aipatu Eskuliburua, euskeraz eta erderaz, Bizkaiko zein Euskal Herriko Eraikuntzako profesionalei zuzenduta dago. Hala ere, publikoarentzat orokorrean eskura dago, dohain, **www.erailur.com web-orrian.**

# 4. Hemeroteka

**Eraikintzako patronalak obretan seguruenak diren bazkunen erregistroa sortu du**

Eraikintzaren Nazio Konfederakundearen (CNC) konpromisoa da laneko osasun eta segurtasunaren arloko legeria betetzea bultzatzea. Hark horretarako abioan jarri du arlo honetako gutxieneko betebeharrak betetzea bermatzen duen enpresa-ziurtagiri berria. Ekimena Administraziora aurki eramango dena, enpresa-erregistro bat sortzean datza, enpresa erregistratuek 1622/1997 Errege Dekretuaren II. Eranskinaren eremuan eguneraturik daudela hasieran berma dezaten (bertan xehetasunez azaldurik daude langileen segurtasunarentzat eta osasunarentzat arrisku bereziak berekin ekartzen dituzten lanak).

Sektorean kalitate-zigiluaren moduko bat ezarri gura da, bazkunik seguruenak bereizteko tresna bat alegia. Era berean, bezeroek, bai pribatuek bai publikoek, legeria betetzen dutela ziurtatzen duten enpresak bilatzeko tresna bat izango dute. CNC-ren proposamenak zuzeneko eragina du herri lanaren merkatuaren eta Gobernua obra-kontratu berrietarako eskaintzak eskuratzeko eta balioztatzeko mekanismoei buruz egiten dabilen berrikuspenaren gainean. Patronalak ez du ziurtapen hau eskaintzak puntuatzeko sistema bezala ulertzerik nahi, hori horrela ulertzea legezkontrakoa baita. Baina ez dio gaitz iritzi hura merkatura sartu nahi duten enpresak aurretik sailkatzeko sistemaren zati izateari.

*Iturria: Expansión (2005/05/10)*

**Osalanek diruz lagunduko du arriskuak kudeatzeko sistemak ezartzen**

Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeak enpresei aurten diruz lagunduko die, beren ekoizpen-zentroetan laneko arriskuak kudeatzeko sistemak ezarri nahi dituzten enpresei zehazki.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak ekainaren 21ean argitaratu du Justizi, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren menpeko erakundearen ebazpena. Beronen bitartez diru-laguntzak jaso ahal dituzte horrelako proiektuak erantsi dituzten enpresek.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeak aurten laguntzotarako guztira 300.000 euro eskaintzeko asmoa du.

OSALAN

Laguntzak jasotzeko hertsiki bete beharko da burutzapen-epea –diruz laguntzeko moduko jarduerek urtea bukatu aurretik amaiturik egon beharko dute. Osalanek, laguntzok emateko, erakunde ospetsuek emandako arauen, zehaztapen teknikoen edo/eta gomendioen aplikazio maila baloratuko du.

Era berean, kontutan hartuko dira ekintzen kalitate maila zenbatetsia (sistema kalitate eta ingurumen sistemekin batera integratzea), lan-arriskuak prebenitzearen arloko jarduketetako eta ezarpen-proiektuetako langileen parte-hartzen maila, enpresaren neurriak eta inbertsio-esfortzua, eta enpresa edo enpresa taldea ezbehar asko dauden sektoreetakoa den.

*Iturria: www.prevention-world.com (2005/06/21)*





**Itaun** postontzia

eraikal@ej-gv.es

"ERAIKAL BERRIAK" informazio-aldizkariak postaren bidez jaso nahi baduzu zure eskaera itaun-ontziaren bidez "eraikal@ej-gv.es"-era Hartzaile, Enpresa eta Helbidea adierazten.